

HARREMANAK

Gure bezeroekin komunikazioa eta harremanak egotea oso garrantzitsua da, gure produktua saltzerakoan asko lagunduko digulako. Horrez gain, bezero eta enpresaren arteko harremanen atzean hainbat motibazio ditugu: bezero edo kontsumitzaile berriak lortzea, enpresak dauzkan bezeroei eustea eta salmenta kopurua handitzea.

Guk gure bezeroekin izango ditugun harremanak automatizatuak izango dira, hau da, bezeroekin harremana webgune baten bidez, zehazki "Platanomelon" bidez bideratuko dugu. Ondorioz, enpresa-berezoen arteko harremana automatizatu zerbitzu bidezkoa izango da eta horrela gauzatuko dugu: bezeroak produktua eskatuko du online bidez eta bi egun barru etxean izango dute. Ez dugu harreman pertsonala aukeratu, izan ere, ez dugu denda fisikorik izango bezeroekin aurrez aurre hitz egiteko. Gure ustez produktuak online bidez saltzea zentzuzkoena da, teknologia berriak etorkizuna direlako eta gainera, denda fisikoekin gastu handiagoa izango delako.

Arazorik izanez gero, gurekin kontaktuan jartzeko aukera izango dute telefono edo mezu bidez eta horrela bezeroekin dugun harremana sendotu eta zabalduko da. Horrez gain, iruzkinak egiteko aukera izango dute, beraien iritzia adierazteko eta horrela guk hobekuntzak egin ahal izateko.